

ARABAKO EUSKARA

Arabako euskararen inguruko idazle zaharren lekukotasunak dauzkagu, sakabanatuak dauden arren Bonaparterenak besteak beste. Mitxelenak ere hegoaldeko dialektotzat identifikatu zuen 1958an, eta Landucciren hiztegia ere Arabako euskararen lekuko da. Hala ere, Mitxelenaz geroztik beste teoria batzuk ere izan dituzten euskalariak egon dira, adibidez Urgell eta Zuazo. Azken honen arabera, Arabako euskara ez da benetako euskalkia, tartekoa baizik, Bizkaieraren, Gipuzkeraren eta Nafarreraren tartekoa hain zuzen ere. Urgellek aldiz Gasteizen bereziki garrantzia handi duen euskalki indartsu eta berezizat du.

Arabako euskarak Bizkaikoaren antz handia duela esan genezake, baina aatik nortasun berezia ere baduela. Poliformismoa eta berrikuntzak agertzen dira bertan, adibidez :

- Poliformismoak :

- soziatiboan bai *-gaz* eta bai *kin* erabiltzen dira
- *edun aditzaren adizkietan *dot-dut-deut* egiten da
- Nor-Nori-Norkeko kasuetan *deutsut + dit = deraustae* ematen du

- Berrikuntzak :

- a + a > ea inon baina gehiago egiten da
- datiboa *-ai* egiten da bai singularrean eta pluralean
- partitiboa + *-ta* egitura erabiltzen du Lazarragak ugari

EUSKARA BATURANTZ

Gerra Zibilaren aurreko garaian jada batasunaren alde eta kontra zeudenen presentzia nabaria zen. Gerra ondoren ostera gaia plazaratu zuten hainbat hizkuntzalari eta euskalariak, besteak beste, Krutwing-ek lapurtera klasikoa proposatu zuen. Nafar-lapurterak ere gora egin zuen eta gipuzkera osotuak aldiz behera. Garai berean euskara osotua proposatu zen eta Euskaltzaindiaren ekarpena egin zen.

Euskara batua sortzeko egin beharreko bidea hastean egoera soziopolitiko aldakorra izan zen, 60.hamarkadarako jada ekonomia gorantz zihoalako Ipar nahiz Hego Euskal Herrian, frankismoa arintzen zihoalako, ETAren sorrera eman zelako... Soziolingüistikoki ordea giro egokia zegoen EHan : herri handietako gazteria euskara erabiltzen hasia zen, haurrak Ikastoletan ikasten hasi ziren, helduak Gau eskoletara joaten ziren, euskara hiritartzeko eta kulturalizatzeko borondatea zegoen, EHa bere osotasunean ulertzen zen... Beingo, arrazaren ordezkariak hartu zuen nortasuna definitzeko gaitasuna.

60.hamarkada hastear zelarik Euskaltaindiak euskal hitzen inguruko agiria egin zuen, euskara bizian sustraituak dauden horiek alegia. Euskara batuaren aintzindari nabarmenenak Aresti eta Txillardegi izan ziren, eta hamarkada amaieran Arantzazuko biltzarra egin zen euskara batua osatzen eta adosten hasiko zen euskaltzain talde batez osaturik.

AKITANIERA

Izena egungo Frantzian ere mantentzen da; bai orduan eta baita orain ere gutxi gora-behera Pirioekin, Garona ibaiarekin eta Atlantikoarekin muga egiten duen eskualde zabalari deritzo. Erromatarren konkista K.a. II-I.mendeetan hasi zen Erromatik mendebaldera dauden lurretan. Akitaniaren ekialdea K.a. 110-106 bitarte konkistatu zen, eta Akitaniako gainerakoa 50 urte geroago. Hego Euskal Herriari dagokionez konkista lehenago hasi baina beranduago amaitu zen (K.a. 176an hasi eta 56an bukatu). Erromatar inperioaren gainbera ordea K.o. III.mendean izan zen. Ordukoak dira akitarierari dagozkion aurkikuntzen lekukotasun antzinakoenak (K.o. I-III.mende bitartea). Pare bat mende beranduago hizkuntza erromantzeak jaiotzen hasten dira, horien artean euskararekin egun elkarbizi diren gaztelera eta frantsesa.

Akitanierako idazkunak aurkitu dira Iparraldean zein Hegoaldean. Iparraldean Baignes-de-Louchon herrian (egungo Okzitania) eta Hegoaldean Lergako hilerrian (egungo Nafarroan 1960ean aurkitua). Hala ere, Hegoaldean Nafarroan, Araban, Oiartzunen, Aragoi aldean, Sorian eta Errioxan ere aurkitu izan dira Akitaierazko idazkun batzuk. Rin ibaian duela urte gutxi aurkitutako hondoratua zegoen itsasontzi batean ere 19 izen aurkitu dira, eta gainera ez ziren denak berriak izan.

Oso corpus itxia eta txikia du hizkuntza honek. 500 hitz inguru besterik ez dira aurkitu, non gehiengoa jainkoei egindako eskaintzak, hilarriak edota norbaiten ohoretan egindako idatziak diren. Esan bezala, gehiengoa toponimo, teonimo eta antroponimoak dira.